

www.apdema.org

2020KO JARDUEREN MEMORIA



ASOCIACION A FAVOR DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL DE ALAVA
ADIMEN-EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN ALDEKO ARABAKO ELKARTEA

Aurkibidea

Elkartea 01

Misioa	3
Ikuspegia	3
Balioak	4
Batzar Nagusia	4
Zuzendaritza Batzordea	5
Bazkide mugimendua	5
Ekonomia	6
2020. urtea zenbakitan	7
2020ko jarduera nagusiak	8

Zerbitzu asoziatiboak 02

Familiei laguntzeko zerbitzua	9
Prestakuntza eta dibulgazioa	10
APDEMAren batzordeak	10
Komunikazioa	12

Etxebizitza zerbitzuak 03

Baliabideak	13
Talde-etxeak	13
Egonaldi laburrak	14
Atsedeen programa	14
AVI programa	15

Aisia eta gizarte parte-hartze zerbitzuak 04

Aisia zentroak eta programak	18
Oporraldi programa	18
Bidaia programa	18
Kirol programa	19
Boluntarioak	19
Autokudeatzaileen programa	19
Irakurketa errazeko klubak	19

Arreta goiztiarreko zerbitzua 05

Arreta zuzena	21
Familientzako laguntza	23
Koordinazioa	23
Udal haur eskoletako eta haurreskoletako aholkularitza	23
Gizarte prestakuntza eta parte-hartzea	23

Aurkezpena

Familia maite agurgarriak:

2020ko jarduera-memoria aurkezten dizuet.

Ez dut urte horren baloraziorik egin nahi, denok dakizuelako zer gertatu den Covid-19ak eragindako pandemiarekin.

Imajinatzen dut gutako batzuek intentsitate-maila handiagoarekin edo txikiagoarekin jasango genuela, eta, zoritxarrez, beste batzuek ezin izan dutela gainditu, eta gaur egun ezin dituztela lerro hauek irakurri, ahaztu gabe indar handiagoz jasan dutenengan utzi ahal izan dituen ondorio garrantzitsuak. Espero dut txertaketa orokorraren itxaropenarekin arrazoizko epe batean duela urtebete baino gehiago atzean utzi genituen ohiturei berrekin ahal izatea.

2020ko jarduerari dagokienez, esan behar dizuegu oso baldintzatuta egon direla praktikan jartzeko, lehen esandakoagatik. Hala eta guztiz ere, gogotik saiatu gara kideek egin ahal izan diren eta memorian zehaztuta dauden ekimen guztiak burutu ahal izan zituzten.

Aurreko Batzar Nagusian aurreratu nizuenez, hurrengo batzarretik aurrera ez naiz jada zuen lehendakaria izango, eta ez dut inolako kargurik izango elkartean; beste kide bat izatera pasako naiz, besterik gabe, zuetako gehienak bezala.

Elkarteari laguntzen jarraitzea animatzen zaituztet, nik egingo dudan bezala, bakoitzak ahal duen neurrian, bere espirituari bizirik eusteko, hau da, adimen-urritasuna duten pertsonen bizitza duina eta kalitatezkoa eskaintzeko.

Eskerrik asko guztioi urte hauetan partekatutakoagatik.

Juan María Rodríguez Ortíz de Zárate. APDEMAko presidentea

Zuzendaritza batzordea

Presidentea:

Juan María Rodríguez Ortiz de Zárate jauna

Presidenteordea:

María Begoña Ortiz de Zárate Ortiz de Pinedo andrea

Idazkaria:

Aitor Olabe Beobide jauna

Diruzaina:


Carlos Errasti Murguiondo jauna

Kideak:

José Antonio Amurrio Urraca jauna
Emilio Francisco Javier Gallego Gallego jauna
María Angeles Gamarra Mayor Martínez andrea
Mercedes García López andrea
María Angeles Deza Carrillo andrea
María Blanca Sáenz de Urturi Sáenz de Urturi andrea
María Carmen Loreto Carranza Hernaez andrea
Alain Callejo Matía jauna
María Victoria García Cordero andrea

2020KO
JARDUEREN
MEMORIA

Organigrama



Adimen urritasuna duten pertsonen aldeko elkarre bat gara.
APDEMA 1962. urtean sortu zuten Arabako gurasoek.
Gure misioa da adimen urritasuna duten pertsonen eta euren familien
bizi-kalitatea hobetzea.

Honako hauek dira gure elkarrearen balio nagusiak:
justizia, kalitatea, goxotasuna, unibertsaltasuna eta parte-hartzea.
APDEMAK 2 bazkide mota ditu: familiak eta kolaboratzaileak.
2019an, 700tik gora familia eta ia 500 kolaboratzaile ditu elkarreak.

01 Elkarrea



Gure sorreratik (1962), Araban adimen urritasuna duten pertsonen eta haien familien bizi-kalitatea hobetzeko lan egiten duen elkarrea da geurea, APDEMA, eta haien autodeterminazioa eta gizareratzea lortzea du helburu. Parte-hartzeari eta bizikidetzari irekita dauden eta arretarekin, prestakuntzarekin eta gizarte-sentsibilizazioarekin konprometituta dauden pertsonak osatzen dute APDEMA. 1.200 familia baino gehiago ditu bazkide numerario eta laguntzaileen artean. Irabazi asmorik gabeko elkarrea da, eta 1971n onura publikokotzat jo zuten.



Betidanik erreferente izan gara adimen urritasuna duten pertsonen eskubideen defentsaren eta gizareratzearen arloan. Gure jarduera eta aintzatespen garrantzitsuenen artean, azpimarratzekoa da Adimen Urritasuna duten Pertsonen Elkartearen Aldeko Espainiako Federazioaren (FEAPS) (egungo Gizareratze Osoa) sorreran bazkide fundatzaile gisa parte hartu izana, 1991n Eusko Jaurlaritzak Euskadin gizarte-zerbitzuak sustatzeko erakunde gisa emandako SUSTATU saria eta 1994ko Arabako domina, Arabako Foru Aldundiarena, egindako giza eta gizarte-lanagatik.

Misioa

Adimen urritasuna duten pertsonen eta euren familien bizi kalitatea hobetzea.

Ikuspegia

Guk nahi dugun etorkizuna ingurune osasungarri, irisgarri eta bateragarriak eraikitzean datza, autodeterminaziotik eta adimen urritasuna duten pertsonak barne hartuta.

Horretarako:

Elkartea buru da urritasunen bat duten Arabako pertsonen beharretarako konponbideetan, ondorengo hauekin:

- Titulartasun (erantzukizun) publikoko Kudeaketa Eredu Misto batekin: gestio pribatu kontzertatukoa eta plangintza publikoaren mendekoa. Elkarreak zerbitzuak erabili eta ematen ditu aldi berean.
- Gizarte ordezkari handi eta zabal batekin.
- Jarduera-irizpide berritzaileak erabilia, baliaezintasunari dagokionez.
- Familien lidergo soziala eta elkarteen parte-hartze demokratikoa sustatuta.
- Bizi kalitatearekin konprometitutako elkarte kualifikatu gisa, gaitasun teknikoak eta kalitatea legitimazio-iturrien osagarri direlako, ezintasuna duten pertsonen eta horien familien beharrei konponbideak emateko gaitasuna biderkatzen dutelako eta eraginkortasuna nabarmen hobetzen dutelako

Balioak

Elkarreak bere egin ditu munduaren ikuspegi partekatuekin, ezintasun intelektuala duten pertsonen eta horien familienekin, eta horiek euren inguruarekin duten erlazioarekin bat datozen balioak.

Ondorengo hauek, alegia:

Elkartasuna	Kualifikazioa eta berrikuntza
Justizia	Eraginkortasuna
Kalitatea	Independentzia
Gardentasuna	Kooperazioa
Inguruarekiko elkar harremana	Kide izateko sentimendua
Bezeroarekiko orientazioa	Parte-hartzea

Batzar nagusia

Gure historian lehen aldiz, Elkarrearen Ohiko Batzar Nagusia telematikoki egin zen, Covid-19aren pandemiak eragindako osasun-larrialdiko egoera zela eta. Hala, 2020ko azaroaren 26an, boto-eskubidea duten hogeita hamaika elkartekide, Zuzendaritza Batzordeko kideak, zuzendari kudeatzaileak, Giza Baliabideen zuzendaria eta APDEMAko beste teknikari batzuk bertaratu ziren.

Bertan, gure intereseko gai nagusiak jorratu ziren, hala nola 2019ko ekitaldiko jardueren eta urteko kontuen memoria, 2020ko proiektuak eta aurrekontu ekonomikoa edo Zuzendaritza Batzordearen berrikuntza partziala, gure estatutuetan adierazten den bezala.

Lehendakariak hasi zuen bilera, eta azaldu zuen batzarra azaroan egiten zela urteko lehen seihilekoan ez genituelako lankidetzeta-hitzarmenen likidazioak, eta horregatik atzeratu behar izan zela kontu-ikuskaritza.

Gero, aurreko akta irakurri eta onartu ondoren, idazkariak 2019ko jarduera-memoria aurkeztu zuen, eta zuzendari-gerenteari eman zion hitza, memoriaren ikus-entzunezko aurkezpena egin zezan. Horri buruz galdetuta, bertaratuak aho batez onartzea erabaki zuten.

Jarraian, idazkariak urtean zehar izandako bazkide-mugimendua azaldu zuen. Eskematikoki adierazita, 2019ko ekitaldia ixtean, bazkide numerarioak 749 ziren; bazkide laguntzaileak, berriz, 454.

Batzarrean jorrotutako hurrengo gaia 2019ko ekitaldiko urteko kontuak izan ziren. Diruzainak, José Zurita jaunak, xehetasunez azaldu zituen gastuen eta sarreraren partida nagusiak, bai eta 2019ko ekonomia-ekitaldiari dagozkion balantzea, emaitzen kontua eta saldoak ere. 2019ko kontuek 5.340,23 euroko superabita erregistratu zuten, 2018an jasotako legatu baten ondorioz. Azalpenak eman ondoren, Batzarrak aho batez erabaki zuen 2019ko kontuak onartzea.

Zuzendaritza Batzordea berritzeari dagokionez, idazkariak Zuzendaritza Batzordea berritzeko izendatutako hautagaiak aurkeztu zituen: MARIA ANGELES GAMARRA MAYOR MARTINEZ, JUAN RODRIGUEZ ORTIZ DE ZARATE (lehendakari izateko berriz hautatua) eta CARMEN CARRANZA HERNAEZ (kide izateko berriz hautatua). Aho batez onartu zen Batzarrean Zuzendaritza Batzordeak horren berritzeari eta

karguak izendatzeari buruz egindako proposamena; beraz, hautagaiak hautatu eta izendatu ziren.

Ondoren, 2020rako proiektuei heldu zieten. Presidenteak adierazi zuen urtea aurreraturata zegoela eta hainbat proiektu zeudela martxan jada. Presidenteak horien inguruko azalpen xehea eman zien bertara joandako bazkideei. Hala, gure bazkideen eta erabiltzaileen premiei buruzko azterlana, amaituta zegoena, nabarmendu zuen. Azterlan horren emaitzak 2020ko dibulgazio-kanpainan sozializatuko ziren, eta abian jarriko ziren "Enlazados" (Lotuta) eta "Círculo de Mujeres" (Emakumeen Zirkulua) programa berriak. Zerbitzu eta programa guztiak Covid-19ak eskatutako osasun-neurrietara egokitzeko eta kontingentzia-planak eta protokoloak egiteko beharra zehaztu zuen. Era berean, bertan behera utzi behar izan zituzten jardueren berri eman zuen, baita normaltasun berrira egokitutako beste jarduera batzuen berri ere, hala nola "Gelditzeak" eta



"Ihesaldiak". Batzarrak aho batez onartu zituen aurkeztutako proiektuak. Amaitzeko, 2020ko aurrekontu ekonomikoa jorratu zen, eta diruzainari egokitu zitzaion gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspena egitea. Adierazi zuenez, aurtengo aurrekontua %5,5 inguru handitu zen, batez ere hitzarmen kolektiboan itundutako soldata-igoeragatik eta konfinamenduan zehar eta Covid-19aren ondorioz Etxebizitza Zerbitzuan emandako laguntza espezifikoengatik, bai eta norbera babesteko ekipamenduak erosteagatik ere. Igoera hori, funtsean, etxebizitza-zerbitzuari zor zitzaion, aurrekontu orokorraren %78 hartzen baitu. Kuotari dagokionez, 2020. urterako kuota 82 €-tan mantentzea proposatu zen. Batzarrak aho batez onartu zuen kuota mantentzea.

Zuzendaritza batzordea

Bazkideen Batzar Nagusiak, APDEMAren erabaki organo gorenak, Zuzendaritza Batzordearen esku uzten du gure elkarteko eguneroko gai nagusien kudeaketa. 2020ko ekitaldian, ohiko 11 bilera eta beste bi osagarri egin zituzten kideek.

Bazkide mugimendua

2020ko hasieran, 749 bazkide numerario eta 454 kolaboratzaile zeuden erregistratuta. Urtean zehar 7 alta eta 36 baja izan dira bazkide numerarioen artean, bai eta 22 alta eta 9 baja ere kolaboratzaileei dagokionez. Beraz, 2020ko abenduaren 31n, 1.187 familia zituen bazkide APDEMAk. Horietatik, 720 bazkide numerarioak dira eta 467k beren laguntza eskuzabal eta balio-baliotsua ematen jarraitzen dute laguntzaile gisa.



Ekonomia

APDEMAk, gure elkarteak, lau lankidetzeta-hitzarmen sinatu ditu 2020an Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin. Lankidetzeta-hitzarmen horiek etxebizitzei, aisialdiari eta parte-hartze sozialari, arreta goiztiarrari eta elkartze-jarduerei buruzkoak dira, eta guztiak urterokoak.

Txosten hau ixteko uanean, eta GOFEn likidazioaren zain, behin-behineko emaitza ekonomikoek defizita eskaintzen dute Arreta Goiztiarreko eta Etxebizitzetako hitzarmenetan, eta Foru Erakundeak aipatutako likidazioan estaltzea espero dugu.

Kirol Programarako, Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren eta Gasteizko Udalaren laguntza ekonomikoa izan dugu.

2020an, osasun-murritzetek ahalbidetu zutenean eta betiere neurri guztiak betez, enplegurako trebetasunen "Impulsa-T" (Bultza) programa eta adimen urritasuna duten emakumeentzako ahalduntze-programa ("Círculo de Mujeres", Emakumeen Zirkulua) gauzatu ahal izan genituen, Vital Fundazioaren laguntza ekonomikoari esker, "Enlizados" (Lotuta) programa La Caixa Gizarte Ekintzarekin sinatutako hitzarmenari esker eta "Integrazio" programa ONCE Fundazioaren ekarpen ekonomikoari esker.

Kontabilitatearen gardentasunari eta zuzentasunari dagokienez, esan behar da 2019ko ekitaldiaren kanpo auditoria orokor bat enkargatu zela, eta BETEANek egin zuela; txosten hori Ohiko Batzarrean onartu zen. Dagokion bezala, Foru Erakundeak berak zehatz-mehatz ikuskatu du gure kontabilitatea.


Eusko Jaurlaritzari ere aurkeztu zaizkio kontuak, "erabilera publikoko" eta "gizarte intereseko" elkarteak baita gurea. Vital Fundaziotik jasotako laguntza ere azpimarratu behar dugu, lokalak utzi baitzizkigu, bai eta Gasteizko, Laudio, Eltziegoko, Arratzua-Ubarrundiako eta Amurrioko udalen lankidetzeta ere, azken horrek udalerriri horretako etxearekin laguntzen digu, adibidez. Gure RSE programarekin bat egin duten enpresa eta erakundeei eta ekonomikoki (baita anonimotasunetik ere) lagundu diguten guztiei ere, eskerririk asko.

2020KO Diru-sarreraren eta gastuen laburpena. Behin-behineko datuak.

Gastuak		Diru-sarrerak	
Gofe-rekin hitzartutako zerbitzuak		Gofe-rekin hitzartutako zerbitzuak	
Arreta goiztiarra	820.748,42	Arreta goiztiarra	820.748,42
Etxebizitzak	5.122.022,50	Etxebizitzak	5.122.022,50
Aisia	273.401,30	Aisia	273.401,30
Zerbitzu komunak eta asoziatiboak		Zerbitzu komunak eta asoziatiboak	
Kanpoko zerbitzuak	41.822,08	Sozialak	72.569,27
Langileak	232.135,36	GOFEn hitzarmena eta dirulaguntzak	240.107,49
Programak eta Jarduerak	66.373,27	Programak eta Jarduerak	27.481,26
Hitzarmenetik kanpoko programak	49.059,24	Hitzarmenetik kanpoko programak	49.577,90
Zerbitzu komunak eta asoziatiboaren guztizko gastuak		Zerbitzu komunak eta asoziatiboaren guztizko diru-sarrerak	
389.389,95		389.735,92	
Gastuak guztira		Diru-sarrerak guztira	
6.605.562,17		6.605.908,14	

2020. urtea zenbakitan


1.620



Erabiltzaileak

- Asoziatiboak **720**
- Etxebizitzak **174**
- Aisia **262**
- Arreta goiztiarra **464**

217



Profesionalak

- Asoziatiboak **13**
- Etxebizitzak **172**
- Aisia **10**
- Arreta goiztiarra **22**

Erabiltzaileak

Asoziatiboak

Bazkide diren familiak **720**

Familiekin elkarriketak **146**

Etxebizitza zerbitzu orokorrak 174

Etxeak **93**

Egonaldi laburrak **16**

Avi **42**

Atsedeen etxea **23**

Aisia 262

Gasteiz **187**

Amurrio **23**

Laudio **25**

Arabar Errioxa **27**

Autokudeatzaileak 65

Gasteiz 55

Amurrio 10

Kirola 146

Gasteiz 131

Laudio 15

Arreta goiztiarra 464

2020Ko jarduera nagusiak

Desgaitasun intelektuala duten emakumeak ahalduntzeko "Círculo de Mujeres" (Emakumeen Zirkulua) programa.

"Enlazados" (Lotuta) programa abian jartzea. Adimen-urritasuna duten helduentzako arreta inklusibo eta integraleko zerbitzua.

EDE Fundazioaren lankidetzarekin, Bazkideen eta Erabiltzaileen Beharren Azterlanaren emaitzak aztertzea eta argitaratzea.

Etxebizitzak: baliabideak eta programak Covid-19ak ezarritako osasun-neurrietara egokitzea. Covid-19a kontrolatzeko kontingentzia-protokoloak eta -planak egitea eta ezartzea.

Taldeen etxetan banakako denbora ezartzea arreta-metodologia gisa.

Aisia eta gizarte parte-hartzea: programak eta jarduerak egokitzea urtean zehar. 2020ko udan, aisialdiko jarduerekin eta abuztuko asteburuko ihesaldiekin eta kirol-asteburuekin.

Arreta goiztiarra, esku-hartzeak modu telematikoan egokitzeko.

Elkartean emakumeen eta gizonen berdintasunerako plana ezartzea.

Areto futbolero ROYAL GASTEIZ APDEMA talde inklusiboaren izen-ematea FUTSALeko Eskualde Ligan, Arabako Futbol Federazioaren 2020-2021 denboraldian.



Familiak oso inportanteak dira adimen urritasuna duten pertsonentzat. Zaindu, lagundu eta autonomia eta bizi-kalitatea sustatzen dute. Gure elkarteak euren eguneko lanean lagutzen die familiei. Prestakuntza lanak egin eta ezagutzera ematen dute elkarteak.

APDEMAAn, Batzorde izeneko lan-taldeak daude. Hauek dira APDEMAren batzorde nagusiak: Enplegu Batzordea, Okupazio Zentroen Batzordea, Erabiltzaileen Batzordea eta Adinekoen Batzordea.

02 Zerbitzu asoziatiboak



Familiei laguntzea, informazioa ematea, entzutea eta haien ondoan egotea. Horrela laburbiltzen da APDEMAko Elkarten Zerbitzuen helburu nagusia. Horixe da APDEMAren zerbitzu asoziatiboen helburu nagusia. Horregatik, bertako profesionalen lan handi bat gure erabiltzaileen familiei laguntzea da, ezinbestekoak baitira adimen edo garapen urritasuna duten pertsonen bizitzan. Ez urritasuna duten pertsonak zaintzeko bakarrik, baita horien autonomia eta bizi-kalitatea sustatzeko erreferente pertsonal gisa ere.

Hala, batetik, APDEMAren zerbitzu asoziatiboen taldeak gure erabiltzaileen familien informazio eta laguntza beharrei erantzuten die.

Familiei laguntzeko zerbitzua

Adimen urritasuna duen pertsonaren familiaren dimentsioa du ardatz zerbitzu honek, elkarrizketa pertsonalaren bidez batez ere, eta eguneroko gai jakinetarako konponbideak aurkitzeko kudeaketak ere egiten ditu.

Banakako arretak ondorengo hau suposatzen du:

- Adimen urritasunarekin lotutako gaien inguruko informazioa, orientazioa eta kudeaketa.
- Elkartera informazio edo aholku eske jo duten pertsonen hasierako ongietorria ematea. 2020an 5 bazkide berri egin ditugu.
- Prestazio ekonomikoak. Urtero bezala, prestazio ekonomikoaren eta familia babesteko neurrien liburuxka bat egin da, gida modukoa, adimen urritasuna duten pertsonentzat.



- Baliabide instituzionalen eta horiek eskuratzeko moduen inguruko informazioa.
 - Erabiltzaileen eta horien familien inguruko datuak jaso eta eguneratzea. Bazkideen egoera pertsonal eta familiarrean izandako aldaketak eta familiei arreta emateko eta talde etxeetan bizi diren pertsonen jarraipena egiteko eguneroko erregistroak jasotzen dira.
 - Egoera espezifikoa esku hartzea, bizi-kalitatearen hobekuntzan, familia arteko gatazketan eta abar.
 - Trantsizio-uneetarako laguntza, arreta goiztiarreko zerbitzutik hezkuntza sistemara pasatzeko, hortik lan eta lanbide mundura, erretirora, edo etxebizitza espezifikotara.
 - Harremana izan dugu erakundeen baliabideetan artatu gabeko pertsona batzuekin, eta harremanetan jarri gara eurekin, beren egoera pertsonalari buruz jakiteko.
- Guztira, 146 pertsona artatu dira 2020an, 92 emakume eta 54 gizon.

Prestakuntza eta dibulgazioa

• Hezkuntza arloko dibulgazioa

2020an, GASTEIZTXO programan, elkarrizketak egin dira Mercedaria eta Koldo Mitxelena Institutuko 2 ikasle talderekin. Udalaren GASTEIZTXO programaren bitartez, APDEMA eta horren funtzionamendua ezagutzera ematen dira, eta sentibilizazioa eta bisibilitatea sortzen dira gizartearen.

APDEMAren batzordeak

• Enplegu Batzordea

APDEMAren erabiltzaile eta INDESAko eta Gureakeko langile diren sei pertsonak, APDEMAren erabiltzaile eta INDESAko langile diren pertsonen lau senidek eta Elkarteko bi profesionalek osatzen dute Enplegu Batzordea. Enplegu zentro berezietan gertatzen denaz eta bertako langileen ingurukoaz egunean egotea da helburua. Aurtun, berrikuntza gisa, desgaitasuna duen beste pertsona bat gehitu da batzordera, baita beste hiru senide ere, azken horien ordezkaritza txikia baitzegoen. 2020an bi bilera egin dira.

• Okupazio Zentroetako Batzordea

Okupazio-zentroen errealtatearen berri izateko, APDEMAren erabiltzaileen zazpi senidek osatzen dute batzorde hau. 2020an ez da bilerarik egin, kideek hala erabaki dutelako, osasun-egoera dela eta.

• Erabiltzaileen Batzordea (Mundua eraikitzen dugu)

2016an sortu zen Batzordea, FEVAS Plena Inclusión Euskadiren "Mundua eraikitzen dugu" proiektuan sartuta dago, eta adimen urritasuna duten pertsonen elkarrean protagonismo handiagoa ematea du helburu. 2020an hiru bilera egin dira, baina ezin izan da ohiko bilera egin APDEMAko Zuzendaritza Batzordeko ordezkariekin.

• Adinekoen Batzordea

2019an APDEMAko helduen batzordea jarri zen martxan. 45 urtetik gorako APDEMAko pertsonak eta horien senitartekoez osatzen dute. Horren helburua da une honetan elkartekideen %60 baino gehiago biltzen dituen kolektiboaren beharrak jasotzea. Gaur egun zortzi lagunek parte hartzen dute, bost emakumek eta hiru gizonek. Urtean zehar 2 aldiz elkartu gara.

• FEVAS Plena Inclusión Euskadiko batzordeak

2020an, FEVAS Plena Inclusión Euskadiko familia-batzordea behin bakarrik bildu da, modu telematikoa.

• Hezkuntzaren jarraipena

2020an, harremanetan egon gara hezkuntza ikastetxeekin eta Berritzeguneko gizarte langileekin.

• Etorkizunerako prestakuntza

Etorkizuna APDEMAko gurasoak eta anaia-arrebak asko kezkatzen dituen kontua da. 2020an, honako gai hauei buruzko aholkularitza eta informazioa eman zaie familiei: testamentua, etorkizuneko tutore-lanak, egoitza-aukerak, pertsonari etxean laguntzea edo legezko gaitasuna aldatzea, tutorea aldatzea eta defendatzaile judiziala izendatzea, besteak beste.

• Erabateko Kalitatearen Ebaluazio Sistema

2020an, planaren funtsezko gaiak lantzen jarraitu dugu, hala nola familien gogobetetzearen ebaluazioa, kolektiboaren ahalduntzea eta ikusaraztea, eta familia taldeen sortzea. Gainera, FEVAS Plena Inclusión Euskadi programaren bidez, familien gogobetetasunaren ebaluazioari buruzko lantaldean eta Familian zentratutako ikuspegiari buruzko beste batean dago APDEMA. Azken talde horren lau bilera izan ditugu aurten. Bertan, FEVASeko hainbat erakundetako profesionalak eta Deustuko Unibertsitateak parte hartzen dugu, familian oinarritutako ikuspegiak elkartean duen garrantziari buruzko diagnostikoa egiten.

• Familia taldeak

Familia-taldeek aktibo jarraitzen dute 2018an martxan jarri ondoren, nahiz eta aurten, osasun-egoera dela eta, bilera bakarra egin ahal izan dugun.

• Bestelakoak

- Kontuak egiteko laguntza.

2020an, elkarteak familia askori lagundu die kontuak egiten eta, ondoren, auzitegian aurkezten; izan ere, pertsona horietako asko adinekoak dira eta zailtasunak dituzte horrelakoak egiteko.

- Elkartearen beste zerbitzu batzuk koordinatzea eta horietan esku hartzea
Aurreko urteetan bezala, harreman eta lankidetzaz estua izan dugu Arreta Goiztiarreko, Etxebizitzako eta Aisialdiko eta Gizarte Parte-Hartzeko zerbitzuekin.

- Proiektuen koordinazioa

2020ko urtarriletik uztailera, **Integrazio Proiektua** garatu da, adimen-urritasuna duten 45 urtetik gorako pertsonen aisialdirako eta komunitatean parte hartzeko alternatiba bat eskaintzea helburu duena. Adinekoen zentro soziokulturalekin ere jarri dira harremanetan, eta haiek eskainitako jardueraren batean parte hartu dute.

2020ko irailean eta Vital Fundazioaren diru-laguntza bati esker, Gizarteratzeko eta Laneratzeko Oinarrituko Gaitasunak eta Baliabide Pertsonalak Garatzeko

Impulsa-T (Bultza) proiektua garatu da. Zazpi parte-hartzaileetatik bi lan-elkarrizketa eta urtebeteko lan-kontratu bat lortu dira. Gainera, parte-hartzaile guztiak enplegu-eskatzaille gisa inskribatu dira Lanbiden, eta enplegu-zentro bereziekin harremanetan jarri dira.

Urritik aurrera Enlazados (Lotuta) proiektua garatu da, La Caixa Gizarte Ekintzaren lankidetzari esker. Helburua adimen-urritasuna duten pertsonak ahalduntzea izan da, haien bizitzako protagonista bihurtuz eta haien bizi-proiektuaren agintea hartuz.

Urritik abendura bitartean **Círculo de Mujeres Programa** (Emakumeen Zirkulua) garatu da, Vital Fundazioaren diru-laguntza bati esker. Adimen-urritasuna duten emakumeak beren bizi-proiektua erabat garatzeko ahalduntzea izan du helburu. 30 eta 60 urte bitarteko 8 emakumek parte hartu dute.



Komunikazioa

Zerbitzu horren helburua da Elkartea sentsibilizatzea eta sustatzea iritzi publikoan leku bat eduki dezan, eta APDEMA Araban adimen urritasuna duten pertsonen eta euren familien alde lan egiten duen elkarte gisa kokatzea.


Zerbitzu horrek egiten dituen jardueren barruan, Ecos informazio-buletina azpimarratu behar da. Horren bertsio digitalean, adimen urritasuna duten pertsonen, euren senideek, teknikariek, boluntarioek eta abarrek elkartearen egunerokoa islatzen dute. Lau hilean behin, inprimatutako bertsioa argitaratzen da, gure eguneroko gai garrantzitsuenekin.

Gizarte medioei dagokienez, 2020an 34.864 bisita izan ditu APDEMAren web orriak. Bestalde, FaceBooken orrialdea 1.426 jarraitzaile (atsegin dut) izatera iritsi zen, eta 1.565 lagunek jarraitzen dute. Bestalde, Twitterreko kontuak 815 jarraitzaile izan zituen.

Aurten ere, desgaitasunaren nazioarteko eguna dela eta, dibulgazio-kanpaina bat egin du APDEMAk, Vital Fundazioaren eta Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Aurtengo kanpainaren leloa "Guztiontzako etorkizuna" zen, eta APDEMAk eta EDE Fundazioak egindako "Erabiltzaileen eta familien beharrei buruzko azterlanetik" ateratako ondorioak eta etorkizuneko gakoak ezagutarazi dira. Bestalde, bizi dugun osasun-krisiari erantzuteko, guztion gogoia berreskuratzea eta kolektibo gisa dugun espiritua eta kidetasun-sena sustatzea izan da helburua.



Zerbitzu asoziatiboaren egitura



Etxebizitza zerbitzuak etxea eskaintzen dio etxerik ez duenari, eta modu independentean bizi nahi duten pertsoneri laguntzen die. Komunitateko ekintzetan parte hartzen ere laguntzen du. APDEMAK taldeentzako 7 etxe kudeatzen ditu Gasteizen,

2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrian.

Egonaldi laburrak ere eskaintzen ditu APDEMAK, kasu puntauletan. Eta eskola-adinean dauden neska-mutilen familiek atsedean programaz goza dezakete asteburuan.

03 Etxebizitza zerbitzuak



APDEMAK Arabako Foru Aldundiaren Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin duen hitzarmenaren bitartez garatzen eta kudeatzen du etxebizitza zerbitzua. Hiru arlotan banatzen da horren jarduerak: Taldeentzako Etxeak, Bizimodu Independentearen aldeko Programa eta Atsedean Programa.



Zerbitzuaren helburu nagusia da adimen urritasuna duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea, euren eguneroko bizimoduan etxeari eta dagokion komunitate-inguruneari dagokienez. Horretarako, erabiltzailearen zoriona, etxean edo komunitate-ingurunean ahalik eta autonomia handiena garatu edota edukitzea, eta erabiltzailearen bizimodua normalizatzea bilatzen dugu, horren nahi pertsonalen eta komunitate-ingurunearen arabera.

Lanerako filosofia horren oinarria pertsonari begirako planifikazioa da, arreta bizi-kalitatean eta laguntzetan ezarrita. Hori dela-eta, banakakoa da gure lana, artatzen dugun pertsona bakoitzari erantzun pertsonalizatua ematen saiatzen gara.

Zerbitzuaren jarduerak probintzia osora zabaltzen da. Zehazki, taldeentzako hamaika etxe daude. Atsedean programak, berriz, pisu bat du Gasteizen, baina probintzia osoko familiak artatzen ditu. AVI programak Gasteizen, Oionen eta Laudion artatzen ditu pertsonak.

Baliabideak

Taldeen etxeak

Etxebizitza baliabideak dira, eta adimen urritasuna duten 11 pertsona artatzen dituzte gehienez. Etxebizitzak iraunkorrek dira, hau da, babes osoa eskaintzen dute urte osoan. Bertan, banakako laguntza programak eskaintzen dira, dagokion komunitate-ingurunearekin koordinatuta, betiere.

APDEMAK 11 talde etxe kudeatzen ditu: 7 Gasteizen, 2 Oionen, 1 Laudion eta 1 Amurrión.

Egonaldi laburrak

Talde etxeetako aldi baterako egonaldi laburrak dira, eta urteko hainbat sasoiartean erabiltzen dituzte adimen urritasuna duten pertsonak. Senideen behar berezietarako edo pertsonak bereaiek une jakin batean eduki ditzaketen premiazko egoera puntualetarako dira. 2020an, 16 lagunek erabili dute baliabide hori.

Zerbitzua	Egonaldiak	Erabiltzaile kop.	Egunak
Easo	2	2 (gizon bat eta emakume bat)	124
Laudio	8	6 (2 gizon eta 4 emakume)	114
Oion	1	Gizona	203
Urbasa	4	4 (3 gizon eta emakume bat)	143
Zapardiel	1	Emakume	25
Mariturri	17	Emakume	14
GUZTIRA	17	15*	623

(*): Egonaldien kopurua ez dator bat etxebizitza bakoitzeko pertsona-kopuruarekin, pertsona batzuek hainbat egonaldi labur egiten dituztelako.



Atsedeen programa

Familiei laguntzeko programa bat da. Eskola adinean dauden eta adimen urritasuna duten haurren senideei asteburuan eta oporretan atsedeen ematea da helburua.

Atsedeen etxea Gasteizen dago eta urteko asteburu guztietan funtzionatzen du programak, ostiral arratsaldetik astelehen goizera. Gainera, bost eguneko egonaldia eskaintzen zaie familiei oporretan (Aste Santuan, San Prudentzio jaietan edo udan). 2020an, 9-21 urteko 23 neska-mutil (6 neska eta 17 mutil) artatu dira. Aurten 6 familiarri eman zaie baja; gainera, pandemia dela eta, aurten ezin izan da familiarik sartu.



AVI PROGRAMA (Bizimodu Independentearen aldekoa)

Adimen urritasuna edukita, modu independentean bizitzea erabakitzen duten edo erabaki duten eta gauza batzuetan euren kabuz konpon ezin ditzaketen beharrak edo gabeziak dituztenen pertsoneri laguntza, orientazioa eta babesa eskaintzean datza programa. Aurten, zerbitzuak desgaitasun intelektuala duten 43 pertsona artatu ditu; 42, erabiltzaile bat apirilean hil ondoren. Pertsona horiek bakarrik bizi dira, beren etxean, pentsioetan edo gizarte-zerbitzuen saretik kanpoko egoitzetan, eta ez dute inolako laguntza instituzional edo familiarrik jasotzen etxebizitzan. 2020an, pandemia zela eta, duela urte batzuk egiten ari ziren jarduera batzuk ezin izan dira garatu, hala nola AVIko pertsona guztien urteko topaketa edo Andre Maria Zuriaren jaietako elkartzea. Beste jarduera batzuk, udako oporrak eta asteburuetako bidaiak, besteak beste, osasun-gomendioetara egokitu dira.



Zerbitzuaren egitura

Talde etxeak

Batzarrak	Foronda
Mariturri	Urbasa
Oion	Easo
Laudio	Amurrio
Zapardiel	Las Losas
Saracibar	

Programak

AVI

Atsedeen programa

Talde etxeak



Pertsonak: **93**

Profesionalak: **87**

Egonaldi laburrak



Pertsonak: **16**

(39 egonaldi labur)

Profesionalak: taldeen etxeetako profesional berberak babesten eta zaintzen dituzte

AVI programa



Pertsonak: **42**

Profesionalak: **8**

Atsedeen programa



Pertsonak: **23**

Profesionalak: **5**

- Pertsonen behar espezifikoer erantzuteko etxeetan beharrezkotzat jo diren Esku Hartzeko Plan Bateratuak egin dira.

- Bizi-kalitatearen urteko neurketa berria.

- Banakako laguntza-planak eguneratzea.

- Banakako denbora ezartzea etxeetan arreta emateko metodologia gisa.

ZAHARTZEARI BURUZKO EKINTZA-PLAN INTEGRALARI DAGOKIONEZ:

- 45 urtetik gorako pertsonen narriadura kognitiboaren maila neurtzea (helburuaren %90 lortu da).

COVID-19AREN PANDEMIARI DAGOKIONEZ:

- Kontingentzia-plana egitea eta abian jartzea.

- COVID-19aren protokoloa egitea, abian jartzea eta jarraipena egitea.

2021Ean egitekoak:

PERTSONARI ZUZENDUTAKO ZERBITZU BATI DAGOKIONEZ:

- Bizi-kalitatearen neurketa berria.

- Banakako laguntza-planak eguneratzea.

- Profil pertsonalak eguneratzea.

- Zerbitzuak artatutako pertsona bakoitzaren bizi-baldintza espezifikoengatik beharrezkoak diren esku-hartze bateratuko planak eguneratzea.

- Etxebizitza bakoitzaren esku-hartze bateratuko planak hobetzea, etxeetan arreta emateko metodologia gisa banakako denbora bermatzeko.

ZAHARTZEARI BURUZKO EKINTZA-PLAN INTEGRALARI DAGOKIONEZ:

- 45 urtetik gorako pertsonen narriadura kognitiboaren neurketa berria.

- Narriadura kognitiboa diagnostikatu zaien pertsonen jarraipen espezifikoa.

COVID-19AREN PANDEMIARI DAGOKIONEZ:

- Kontingentzia-plana eguneratzea eta horren jarraipena egitea.

- COVID-19 protokoloa eguneratzea eta horren jarraipena egitea.

PROZEDUREI DAGOKIENEZ:

- Atsedeen programako agur-protokoloa eguneratzea.

- Gainerako prozedurak berrikustea eta hobetzea, behar izanez gero.

Etxebizitzak: Jarduera Plana 2020-2021

2020KO ekintza nabarmenak

PERTSONA ARDATZ DUEN ZERBITZU BATI DAGOKIONEZ:

- Taldeen etxeetan bizi diren edo AVI programaren bidez artatutako pertsonen %90en profil pertsonala eguneratu da.

Aisia Zerbitzuak aisia erabilgarri eta onuragarriaren aldeko apustua egiten du. Hiriko kultur, kirol eta aisia eskaintzaz gozatzen dugu. Aisia zentro eta programetan, denbora librea pasatzeko lagunak eta taldeak egiten dira.

Oporretan, bidaiak antolatzen dira kostara, edo bisita kulturalak hiri eta herrietara. Aisian kirola egitera ere animatzen dugu.

04 Aisia eta gizarte parte-hartze zerbitzuak




2020a oso urte konplexua izan da, pandemia-egoera dela eta; izan ere, ziurgabetasunak markatu du errealtatearen egunerokoa, martxotik. APDEMAren Aisialdi eta Gizarte Parte Hartze Zerbitzuaren misioa da adimen urritasuna duten pertsonentzako aisialdi-ekimenak sortzea, hurbilen duten kultura-, gizarte-, kirol- eta jolas-eskaintzaz gozatzeko aukera emango dieten aukera eta ingurune abegitsu eta inklusiboak sortuz.

Zerbitzuak aisialdiko esperientziak eskaintzen ditu denontzat, Arabako herri eta auzoetan, kultura, jolas eta kirol-guneetan.

Aisia zentroetan, animazio soziokulturaleko tailerrak eskaintzen dituzte, astegunetan batik bat, eta kanpoan, parte hartu eta gizarte ingurunean eskaintzen dituen aukerez gozatzen da. Aukerak aisiarako zentro eta programen artean banatzen dira: Gasteiz, Amurrio, Laudio eta Arabar Errioxa, eta ondorengo programa hauek: Kirola, udako oporrak eta bidaiak, aisia komunitatean, zahartzea, irakurketa errazeko klubak, boluntarioritza eta autokudeatzaileak.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearekin egindako hitzarmen baten bidez finantzatzen da zerbitzua.



Aisia zentroak eta programak

Eskaintza, topaketarako, erabakiak hartzeko, parte hartzeko eta harreman pertsonalak zein talde artekoak sustatzeko lekuak, honela banatuta daude: animazio soziokulturaleko tailerrak astelehenetik ostiralera, eta asteburuetako jarduerak, jardueren agenda espezifikoekin.

2020an, Covid 19ak eragindako osasun-larrialdiko egoeraren ondorioz, **Gasteizko Aisialdi Zentroa** itxita egon zen 2020ko martxoaren 14tik irailaren 30era. Beraz, lehen hiru hilabeteetan tailer guztiek 12 plaza izan zituzten gehienez, musikak eta dantzak izan ezik, 14 plaza eskaini baitzituzten. Laugarren hiru hilabeteetan, Covid-19aren neurriengatik, plaza kopurua bederatzira murriztu zen. Eta bi orduko sukaldaritza tailerra ordubeteko bi tailerretan banatu zen, eta beste tailer bat gehitu zen, Pilates tailerra. Arrazoi beragatik, musika, kantu eta dantza tailerren ordez, Erlaxazioa eta Emozioak tailerrak egin ziren.

Alarma-egoera amaitutakoan, Aisialdi Zentroaren jarduerari berrekin zitzaien. Ekainean eta irailean geldialdiak egin ziren astegun arratsaldeetan, astelehenetik larunbatera, talde txikietan eta aire zabalean.

*Komunitateko jardueren eskaintzak, agendak autokudeatzen dituzten gazte talde batekin eta heldu talde batekin, bere jarduerari eutsi zion urteko lehen hiru hilabeteetan, 15 pertsonako taldeekin, eta urritik abendura 6 pertsonako taldeetan. Urtearen amaieran, 187 bazkidek, 14 boluntariok eta jardueretako 4 teknikarik parte hartu dute. Lehen hiru hilabeteetan, berdinaren arteko tratua txarrei buruzko informazio-hitzaldia egin da, eta AU duten 30 pertsona bertaratu dira.

Laudioko eta Amurrioko Gazte Alaiak zentroek ere pandemiaren eragina jasan dute. Laudion, martxoan gelditu genituen jarduerak, eta ekainean ekin genion berriz. 25 bazkidek, 7 boluntariok, lantegietako teknikari batek eta aisialdiko espezialista batek hartu dute parte. Amurrian, berriz, 3 hilabetez itxi dute alarma egoeran, eta 23 bazkidek, 21 boluntariok eta aisialdiko espezialista batek hartu dute parte.

Arabako Errioxako programako jarduerak bertan behera geratu ziren pandemiaren ondorioz, eta uztailean arte ez ziren berriro hartu. Aurten, 27 bazkidek parte hartu dute jardueretan, 6 boluntariok eta aisialdiko espezialista batek lagunduta.



Oporraldi programa

Aisialdiko jarduera gehien-gehienek bezala, osasun-larrialdiko egoerak eragin handia izan zuen oporretako programan. Hala ere, Aisialdi eta Gizarte Parte Hartze Zerbitzuak udako aisialdirako aukera erakargarriak diseinatu zituen, eta arrakasta handia izan zuten APDEMAko erabiltzaileen artean.

Oporren eskaintza berria hiru modalitateetan banatu zen: udako jarduerak, ihesaldiak eta kirol anitzeko asteburuak. Hala, udako jarduerak hainbeste eskaera jaso zituzten, non astean bi talde sortu behar izan baitziren. Uztailean 74 pertsonak parte hartu zuten, 6 eta 8 pertsona arteko taldeetan banatuta, 20 monitoreren laguntzarekin. Abuztuaren, berriz, 58 pertsonak hartu zuten parte, 17 monitoreren laguntzarekin. Bestalde, Aiaraldean eskainitako 2 asteak osorik bete ziren; guztira 18 pertsonak parte hartu zuten, 4 monitoreren laguntzarekin. 10 opor-eguneko Egonaldi Programa tradizionalen ordez, "Asteburuko ihesaldien" eskaintza erakargarria egin zen Mungian. Guztira 28 pertsona bertaratu ziren, 8 monitorerekin eta aisialdiko espezialistek lagunduta, 4 asteburutan.

Azkenik, 16 eta 40 urte bitarteko 18 erabiltzailek eta 4 begiralek 3 eguneko bizikidetzara eta kirola izan zuten kirol anitzeko asteburuetan. Zehazki, uztailean 17tik 19ra Zuhatzara uharterean (Araba) eta abuztuaren 21etik 23ra Hondarribian (Gipuzkoa).

Bidaia programa

Pazko astean ere eragina izan zuen Covid-19aren pandemiak. Beraz, programatutako bidaia guztiak bertan behera utzi ziren, nahiz eta kostaldeko bost helmugatarako 5 txanda programatu ziren 64 erabiltzailerentzat.

Kirol programa

APDEMA Kirol Elkarteak asteroko kirol-jardueren eskaintza bat proposatzen du denboraldi bakoitzean, eta horrela, errentagarritasun sozial handia lortzen da. Pandemia gorabehera, 2020an, Gasteizko 131 kirolarik 7 kirol-modalitatetan parte hartu dute, 16 kirol-taldetan banatuta, 19 entrenatzaileraren laguntzarekin. Laudion, berriz, 15 kirolarik parte hartu dute 2 kirol-diziplinatan, 3 entrenatzaileraren laguntzarekin.

Osasun-larrialdia dela eta, kirol-lehiaketetan parte hartzea bertan behera geratu da. Edo Espainiako Igeriketa Txapelketaren kasuan bezala (FEDDI), atzeratu egin da datarik gabe.

Hala ere, Gasteizko Judizmendi Igeriketa Klubarekin lankidetzan mantendu da, eta hori kirol-denboraldian zehar zehaztu da; izan ere, APDEMAko 5 igerilarik Arabako Igeriketa Federazioaren egutegiko proben Arabako txapelketetan eta azaroan lehen kontrol autonomikoan parte hartu dute.

Boluntarioak

APDEMAko aisia teknikarien laguntzarekin, hainbat boluntario taldek dinamizatzen dituzte aisia zentro eta programetako jarduerak, asteburuetan. Arreta pertsonalizatu eta kalitatekoaren aldeko apustuak etengabeko prestakuntza eskatzen du, abian dagoen aisialdiko eskaintzak eta garatu beharreko zereginak urte urte eraginkortasuna eta erabilgarritasuna izaten jarrai dezaten.

Prestakuntza-jarduerak eta -programa asko bertan behera geratu arren, 2020an APDEMAko 55 boluntario taldea Gasteizko 14 boluntarioen, Aiaraldeko 27en, Arabako Errioxako 6en eta kirol-lehiaketa zein jarduerak puntualetako errefortzuetako 8en artean banatu da.

Irakurketa errazeko klubak

2014-2015 ikasturtean, duela 5 urte, Irakurketa Erraza jarduerak ezarri zen APDEMA, eta jarduerak hori "etengabeko elkartzeko-jarduerak" bihurtu da gure elkartearen. Ikasturteaz ikasturte, adimen urritasuna duten pertsonen irakurzaletasuna handituz joan da.

2020an 3 klubak mantendu ziren, eta urteko lehen eta azken hiruhilekoan funtzionatu zuten. Urritik aurrera, edukiera eta baimendutako parte-hartzaile kopurua murriztu zen, 12 izatetik 9 izatera pasa baitzen klub bakoitzeko. Guztira 62 lagunek parte hartu zuten Ignacio Aldecoa liburutegiko klubetan eta Iparralde eta Gasteizko Pilar Klubetan.

Amurrioko Kultur Etxean, IE-eko Kluba egin zen azken hiruhilekoan, eta 6 pertsonak parte hartu zuten. Aipatzekoa da, halaber, Gasteizko Udalaren IE-ekon Klub inklusiboa, Gasteizko El Pilar Zentroan egiten dena. Bertan, adimen urritasuna duten hiru pertsonak parte hartu dute.

Autokudeatzaileen programa

Covid-19aren pandemiak egindako jarduerak aldatu ditu, baina ez du talde autokudeatzaileen funtzionamendua deuseztatu, ezta kideek jasotako banakako arreta ere. Gaur egun, 65 pertsonak osatzen dute Autokudeatzaileen taldea.

2020an, 5 taldek eutsi diote jarduerari: 4k Gasteizen eta batek Amurrioren; batez beste, %94,79ko asistentzia izan dute. Bilerak urtariletik martxora bitartean egin ziren aisialdi zentroetan. Martxoaren 9tik ekainaren 8ra arte eten ziren, eta aire zabalean hasi ziren berriro, klimatologiak ahalbidetu zuenean. Urritik aurrera, aisialdiko zentroetan autokudeatzaileen bilerak egiten hasi ziren berriro.

Hauek izan dira beste jarduerak aipagarri batzuk: irakurketa errazeko klubak, Santiago Challenge bidea, Gurutze Gorriko boluntarioak, Ecos de Usuarios aldizkaria, APDEMAko Enplegu Batzordean parte hartzea, "Eraiki dezagun mundua" proiektua edo aisialdi partekatuko "Gera gaitzean" programa abian jartzea. Eta, zoritxarrez, bertan behera utzi dira jarduerak izarrak, hala nola Oporrak gure kasa eta Ospitalariak Done Jakue bidean, besteak beste.

Aisia zentroak eta programak



Gazteiz

Erabiltzaileak: **187**

Profesionalak: **9**

Boluntarioak: **14**

Amurrio

Erabiltzaileak: **23**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **21**

Laudio

Erabiltzaileak: **25**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **7**

Arabar erroxa

Erabiltzaileak: **27**

Profesionalak: **1**

Boluntarioak: **6**



Oporrak

Parte-hartzaileak: **196**

Begiraleak: **53**

Txandak edota jarduerak: **17**



Kirola Gasteiz

Kirolariak: **131**

Begiraleak-Entrenatzaileak: **19**

Jarduera taldeak: **16**

Kirol modalitateak: **7**

Asteko
entrenamendu-orduak: **2/3/5**



Boluntarioak

Zentroak eta programak: **55**

Kirola - laguntza -txapelketak: **8**



IE Klubak

Gasteiz Taldeak: **3**

Amurrio Taldeak: **1**

BERTAN BEHERA

Oporrak IMSERSO

Parte-hartzaileak: **28**

Begiraleak: **6**

Txandak: **2**

Kirola Laudio

Kirolariak: **15**

Begiraleak-Entrenatzaileak: **3**

Jarduera taldeak: **2**

Kirol modalitateak: **2**

Asteko
entrenamendu-orduak: **2**

Autokudeatzaileak

Gasteiz Taldeak: **4** Parte-hartzaileak: **55** Bilerak: **61**

Amurrio Taldeak: **1** Parte-hartzaileak: **10** Bilerak: **15**



BERTAN BEHERA

Bidaiak

Parte-hartzaileak: **50**

Begiraleak: **10**

Bidaiak: **3**

Kirola Txapelketak Erkidegoko-Estatuko

Txapelketak: **7**

Kirolariak: **98**

Begiraleak-Entrenatzaileak: **7**

Kirol modalitateak: **2**

Arreta Goiztiarreko zerbitzuan, garapen arazoak dituzten edo halakoak eduki ditzaketen 0-6 urteko neska-mutilak artatzen ditugu. Estimulazio, Fisioterapia eta Logopedia zerbitzuak eskaintzen ditugu. Haur horien familiak ere artatzen ditugu eta lagundu ere egiten diegu,

ongietorria ematen diegu Arreta Goiztiarreko zerbitzuan, eta euren haurtxoei laguntzen erakusten diegu. Gurasoek parte har dezakete saioetan.

05 Arreta goiztiarreko zerbitzua



Garapen arazoak dituzten edo halakoak eduki ditzaketen 0-6 urteko neska-mutiek eta euren familiek dute lekua Arreta Goiztiarreko Zerbitzuan. Euren gaitasunak ahalik eta gehien bultzatzea, haurren eta horren familiaren gizarte inklusioa sustatze, haurren eta horren familiari ingurura egokitzen laguntzea eta modu prebentiboan jokatzeko dira gure zerbitzuaren helburu nagusiak. Horretarako, banakako edo taldekako saioak egiten dira, 45 minutukoak, familiak parte hartuta, eta laguntza eskaintzen zaio behar duen guztietan.



COVID-19aren pandemiak sortutako egoeraren aurrean, martxoaren 13an bertan behera utzi ziren aurreko saioak, eta esku-hartze telematikoko proiektu bat egin zen, ingurune naturaletan esku hartzeko eredu oinarrituta. Horri esker, lana egokitu ahal izan zen, familia-ingurune esku-hartze oinarritutako ikuspegi desberdin batekin. Ekainean eta uztailen zentroan bertan artatu ziren banakako ezaugarriengatik lehentasunezko zatitako haurrak, GOFeko programaren arduradunekin adostutako irizpideen bidez.

Irailan berriro ekin zitzaion arreta presentzialari Arreta Goiztiarreko Zentroan.

Arreta zuzena

Guztira 464 haur artatu dira (331 haur Arreta Goiztiarreko Zentroan), 145 neska eta 319 mutil.

• Estimulazio globala Arreta Goiztiarrean

2020an 288 haur artatu ziren estimulazioan, banaketa honekin:

- 189 haurrek estimulazioa bakarrik jaso zuten
- 22 haurrek fisioterapia/estimulazioa jaso zuten
- 51 haurrek logopedia/estimulazioa jaso zuten
- 26 haurrek estimulazioa/logopedia/fisioterapia jaso zuten

• Fisioterapia Arreta Goiztiarrean

2020an 91 haur artatu ziren fisioterapiari, banaketa honekin:

- 35 haurrek fisioterapia bakarrik jaso zuten
- 22 haurrek fisioterapia/estimulazioa jaso zuten
- 8k fisioterapia/logopedia
- 26k fisioterapia/logopedia/estimulazioa

• Logopedia Arreta Goiztiarrean

Martxoan, eten egin zen jarduera pandemiaren ondorioz, eta uztailean arte ez zen berriro hasi, modu erdi-presentzialean.

Urteko lehen hilabeteetan, ARGIA logopedia-kabinetearekin lankidetzaz hitzarmena izaten jarraitu zen. Irailaren 19an kontratua deuseztatu zen, eta beste lankidetzaz hitzarmen bat hasi zen Arabako Foru Aldundiko Ikuskaritza Zerbitzuak egiaztatutako ADARE eta TIPI zentroekin.

Beren ezaugarriak direla-eta, 133 haur logopedia-saioetara soilik joan dira; beste batzuek, berriz, logopedia-saioak eta arreta goiztiarreko saioak txandakatu dituzte zentroan (51k estimulazioa eta logopedia; 8k fisioterapia eta logopedia; 26k estimulazioa, logopedia eta fisioterapia). 218 haur artatu dira.

• **Hidroterapia:** Seme-alabekin fisioterapiara joaten diren familiei eskaini zaie, jarduera osagarri gisa. Hidroterapiako 8 saio egin dira. Martxoan bertan behera geratu ziren saioak, COVID-19agatik.

• **“Laguntza teknikoak”:** fisioterapiari esku hartzeak, gainera, egokitzapenak egitea dakar: igeltsuzko eserleku moldekatuak, bipedestadoreak, standing-a, etab., altzarien egokitzapenak, kinesiotaping-bendak, ... funtsezko esku-hartzeak haurren eguneroko bizitzan gorputz-jarreraren higieena izateko eta eskolan nahiz etxean sartzeko. 2020an 80 egokitzapen egin dira.

• Familiei arreta eta aholkularitza ematea

Familiei harreman zuzena dute seme-alabei arreta ematen dieten profesionalekin, eta esku-hartze prozesu osoan bultzatzen dute haien inplikazioa.

Otsailean gurasoei zuzendutako emozioen tailerra egin zen, eta 14 familiak parte hartu zuten.

Gaur egun, eta egungo pandemia dela eta, gurasoak ez dira saioetan sartzen beharrezkotzat jotzen ez bada. Aldian behin hitzordua ematen zaie, telematikoki, seme-alabei buruzko informazioa partekatzeko eta jarduteko jarraibideak emateko.

Aurten ezin izan da tailerrik eskaini, ezta ikasturte amaierako festarik ere.



Familia laguntza

Gurasoentzako laguntza sentimenduak adierazteko, ezagutzak eskuratzeko eta jarduteko jarraibideak ikasteko espazio bat eskaintzean datza. Bi motatako laguntza eskaini da: Harrera eta Banakako Laguntza. Hala, 2020an zehar, 85 familia hartu dira zentroan, eta banakako laguntzako 250 esku-hartze egin dira.

Koordinazioa

Funtsezkoa da bertara joaten diren haurren esku-hartzean inplikaturako zerbitzu guztien arteko koordinazioa, hazteko aukerak optimizatzeko. Taldearen asteko barne-koordinazioa
Kanpo-koordinazioa: haurrak joaten diren zerbitzu guztiekin.



Prestakuntza eta gizarte parte-hartzea

AVAPACEren (Buruko Paralisisari laguntzeko Valentziako Elkarte) errutinei buruzko hitzaldiak. AEIPIren (Lehen haurtzaroen esku hartzeko Espainiako elkarte) elkartearen dokumentuak.

Arreta goiztiarreko teleinterbentzioari buruzko hitzaldiak, Plena Inclusionek antolatuta.

Ondorioak

Pandemiak eta konfinamenduak markatu dute 2020. urtea. Talde osoa modu esanguratsuan inplikatu da arreta goiztiarreko familiei ahalik eta arreta onena ematen jarraitzeko, laguntza eskainiz eta eskura zituzten baliabide tekniko eta pertsonalak erabiliz. Familien erantzuna eta inplikazioa, oro har, oso positiboa izan da, eta oso eskertuta agertu dira.

Arreta goiztiarra

Haurrak: **464**

Profesionalak: **22**


Familiak: **464**

Esku-hartzeak

Estimulazio orokorra: **288** haur

Fisioterapia: **91** haur

Logopedia: **218** haur



Laguntzaileak:

ERAKUNDEAK:



ENPRESAK:



DONAZIOAK PANDEMIAN ZEHAR

APDEMA osatzen dugunok gure esker ona adierazi nahi diegu osasun-eta segurtasun-materiala eman diguten erakunde guztiei, eta, bereziki, erakunde horiek osatzen dituzten pertsonen, lankidetzarako eta laguntzarako gizarte-kontzientziagatik, erresilientzia kolektiboagatik eta gizartearen ikuspegi inklusibo eta integratzaileagatik.

KOPAS
COVID EUSKADI
FUNDACION SAN PRUDENCIO
CAMPAÑA APOYO AL PERSONAL SANITARIO DE ALAVA
Asociación de vecinos de SANSOMENDI
COMISION CIUDADANA ANTISIDA
FEDERACION ACTIVIDADES SUBACUATICAS
COLEGIO DE FISIOTERAPEUTAS DE ALAVA
IRANTZU-TZU TELAS
OLAZAR
#CORAZONES CON BATA
#MASCARILLASALRESCATE